



EBPNtik ESEPra igarotzeko irizpide orokorrak:

- Metodologiari dagokionez, EBPNrekin bezala, ESEPeekin ere hainbat urtetarako plan estrategikoak diseinatu eta onartuko dira. Plan estrategikoek urteroko garapena eta implementazioa izango dute, urteko kudeaketa planen bitartez. Ohi bezala, kudeaketa planetan urte horretarako aurreikusi diren helburuak, neurriak, ekintzak, etab. jasoko dira.

Plan estrategikoen iraupenari dagokionez, Zuzendaritza honen gomendioa da plan estrategikoak bat etor daitezela, oro har, administrazioaren normalizaziorako plangintzaldien iraupenarekin; hau da, une honetan, gomendioa da 2017a arteko iraupena duten plan estrategikoak egitea.

Lehendik EBPN onartuta daukaten erakundeei ESEPea igarotzeko bidean laguntzeko asmoz, Zuzendaritza honek EBPNko eta ESEPekeko ekintzen arteko korrespondentzia landuko du. Lan hori toki-erakunde guztiei eskuratuko zaie, amaituta egon bezain laster.

- Plan estrategikoak egiteko epeari dagokionez, Zuzendaritza honen iritziz egokiena izango litzateke toki-erakundeek ahalik eta bateratsuen jokatzeara. Hori dela eta, denbora irizpide hauek ematen dira hurrengo plan estrategikoa egiteko:
 1. Plan estrategikoaren indarraldia 2013an amaitzen duten toki-erakundeentzat: ESEP 2014an onartzea.
 2. Plan estrategikoaren indarraldia 2014an, edo geroago, amaitzen duten toki-erakundeentzat: ahal dela, ESEP 2014an onartzea, edo, ezinbesteko kasuetan, 2015ean.
 3. Plan estrategikorik onartuta ez duten toki-erakundeentzat: ESEP 2014an onartzea.
- Plan estrategikoak jasotzeko eta kudeatzeko tresnei dagokienez, toki-erakundeek Irati aplikazioa erabiliko dute ESEPekeko planak jasotzeko. Alabaina, aplikazio horri egokitzapenak egin behar zaizkio ESEPen eskemarako baliagarri izan dadin, eta horretan dihardugu Zuzendaritza honetan. Aplikazioa prest izan bezain laster toki-erakunde guztien eskura jarriko da. Horrekin batera, Zuzendaritza honek lan saioak antolatuko ditu toki-erakundeei ESEPen garapenean laguntza eman ahal izateko; horien berri garaiz emango da.
- Diru-laguntza deialdiari dagokionez, Zuzendaritza honek aurreikusten du deialdia 2014ko aurreneko lauhilekoan argitaratzea. Hori dela eta, 2013an PE amaitzen zaien erakundeentzako gomendioa da ESEPen araberako planak lehenago lantzen hastea. Gai horretarako, Zuzendaritza honek espresuki bideratutako argibideak emango ditu aurrerago.

Horrez gain, toki-erakundeei unean-unean helaraziko zaizkie gai honen inguruan sortzen diren berriak eta bestelako gaiak.